

KORRIKALARIEN GIDA

2018/4/14

LARUNBATA

17.00-19.00 Dorsal eta txipak hartzeko aukera. Berako Kiroldgian.

19.30. "Al otro lado de la cuerda" filmaren emanaldia. Berako Kultur Etxean.

Sarrera: 3€

2018/4/15

IGANDEA

8.30 Bera-Larun-Bera Mendi txangoa. Lasterketaren irteera gunetik

Distantzia: 14 km

9.00 Bera-Usategieta-Landagaita-Bera mendi txangoa. Lasterketaren irteera gunetik

Distantzia: 10 km

8.00-9.00 Dorsal ematea. Berako kiroldegian. Goiko solairuan

9.30 Berako mendi Maratoi Erdiaren irteera

9.31 14 eta 17 urte arteko gazteen lasterketaren irteera.

11:10 (gutxi gora-beherako ordua) Lehendabiziko korrikalariaren helmugaratzea

13:00 (gutxi gora-beherako ordua). Azken korrikalariaren helmugaratzea

13:30 Sari banaketa. Sari banaketa, zozketa eta hamaiketakoa

ZERBITZUEN MAPA



NAFARROAKO ZIRKUITURAKO LASTERKETA PUNTUAGARRIA

Berako Mendi Maratoi Erdia Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuagarria izango da. Federatuta dauden korrikalari guztiek puntuatuko dute, Nafarroako Mendi Federakundearen parte ez izanik ere.

TALDE ONENARENTZAKO SARIA, TXERRIKUME BAT

Lehenengo taldeak txerrikume bat jasoko du saritzat, eta bigarrenak urdaiazpiko bat.

DUTXAK

Gizonezkoentzako dutxak Toki Ona kiroldegian egonen dira, baita Matzada futbol zelaian ere.

Emakumezkoentzako dutxak pódium inguruan, Rikardo Baroja eskolako aldageletan egonen dira.

Galarazita dago polikiroldegira lasterketako zapatillekin sartzea. Sarreran mangera bat egonen da zapatuillak garbitzeko. Gainera, lasterkariei eskatzen zaie, zakarrontzitatik kanpo zakarrik ez botatzea aldageletan.

KONTSIGNA

Izen emateen ondoan kontsigna egonen da igandean, Toki Ona kiroldegian. Lasterketa hasi baino 30 minutu lehenago itxiko da.

ANOA PUNTUAK

Anoa puntuak 4, 6'6, 9, 10'8, 13, 14 , 15, 17 eta 19 kilometroetan eta helmugan izanen dira. 4. Kilometroan salbu, non likidoa bakarrik egongo den, besteetan solidoa eta likidoa izanen da..

Aurten, 19 eta 20. Kilometroen artean, ur puntu berri bat egonen da, Zumalkuko anoa puntua pasa eta gero eta Berara azken jeitsiera egin aurretik.

KORRIKALARIAREN POLTSA

Helmugako anoa puntuaren ondoan emango da eta proban parte hartu dutenek edukiko dute jasotzeko eskubidea soilik.

ERRETIRATZEKO PUNTUAK

6, 10 eta 17 kilometroetan izanen dira erretiratzeko puntuak

PASO DENBORAK

Antolakuntzako korrikalari batek ibilbidea burutuko du gehienezko paso denborak kontrolatuz. Honako hauek dira:

MANTTALE. 4.8 KM.....55 minutu
USATTA. 9. KM.....1h45 min
LARUN.14.KM.....2h.30 min.
LANDAGAINETA. 17.KM.....2h55min.
HELMUGA 21. KM.....3h30min.

MATERIALA

Mendiko makilak lasterketan zehar erabiltzea onartuta dago. Aldiz, guztiz debekatuta dago makil hauek, anoa puntuetatik kanpo hartzea edota uztea. Mendiko makilak hartu edota uzteko baimendutako leku bakarra, anoa puntuak izango dira.

NATURAREKIKO ERRESPETUA

Berako Mendi Maratoi Erdia, paraje naturaletan garatzen da ia bere osotasunean, beraz, partaide, bolondres eta ikusle guztien ardura honako hau zaintzea, zakarrak botatzea ekiditzen bai ibilbidean zehar edota anoa puntuetan.

Anoa puntu guztietan kontenedore nahiko egongo da bertara hondakinak botatzeko eta helmugan birziklatze puntu bat jarriko da.

Gainera partaide guztiei gogorazten diegu, Berako Maratoi Erdiko, araudiko 14. Artikuluan azaltzen dela, deskalifikazio edo santzio arrazoi bat dela ingurugiroa ez errespetatzea hondakinak ibilbidera botatzeko.

Horrela, Nafarroako Mendi-kirol eta Eskalada Federazioko araudiak (Berako Mendi Maratoi Erdia, Nafarroako Mendi Lasterketa Txapelketen barruan dago) 6.3.1 artikuluan

dio, parte hartzaile bat sailkapenetik at geratu edo zigortua izan daitekela hondakinak botatzen baditu lasterketan zehar.

Besterik gabe, ingurugiroa, aurkitu dugun bezala utzi behar dugula lasterketa ondoren ere.

LASTERKETAREN SAILKAPENAREN ON LINE JARRAIPENA

Lasterketaren sailkapenak zuzenean ikusi ahal izango dira **pb-organisation.com** web orrian.

Lasterketa bukatzean sailkapena Manttaleren web orrian argitaratuko dugu, gure Twitter eta Facebook orrialdeetan, eta **pb-organisation.com** web orrian.

OPARIEN ZOZKETA

Lasterketa bukatzerakoan eta korrikalariaren poltsa jasotzen den tokiaren ondoan, taula batean zozketan saridun izan diren dortsalak jarriko ditugu.

"AL OTRO LADO DE LA CUERDA" FILMAREN EMANALDIA, LASTERKETAREN ASTEBURUKO PROGRAMAREN BARRUAN

Apirilaren 14an, larunbata, mendi maratoi erdiaren bezperan, 'Al otro lado de la cuerda' filmaren emanaldia egongo da Berako kultur etxean 19.30etan.

Javier Valero-ren gidaritzapean egindako pelikula, Arkaitz Yurritaren eta Valero-ren ideia original batean oinarrituta dago eta eskaladaren etika, balio eta naturari buruz hitz egiten du.

Emanaldia Manttalek antolatu du eta Ostargi Optikak babesten du. Sarreren prezioa 3 euro izango da.

IZABAN ASTEBURU BATEN ZOZKETA

2017an bezala, aurten ere Izabako Txapatera landetxean lau pertsonentzako asteburu baten zozketarako boletoak ditugu salgai. Egonaldia Camille Extreme lasterketa ospatuko den astebururako izango da. Txartelak 2 euroren truke egongo dira salgai Agara Prentsa, Pikabea harategia eta Botxo ostatuan.

Lasterketaren egunean ere salgai egongo dira dortsal-biltzearen eremuan. Zozketa Berako Mendi Maratoi Erdiaren ondoren egingo da. Zenbaki saritua www.manttale.com webgunean argitaratuko da.

www.manttale.com

manttaletaldea@gmail.com

[@manttale](#)